

KONTROL MOZIOA

Lauizeta kaleko zubiaren baranda dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko irailaren 15ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Irailaren 4ean egunkarian irakurri ahal izan genuen zein egoera kaxkarrean dagoen Lauizeta kaleko zubiaren barandan.

Bertan esaten denaren arabera eta gerora bizilagunekin baieztatu ahal izan dugunaren arabera, urteak dira egoera txarrean dagoela baranda: barroteak falta ditu, beste batzuk puskatuak daude eta Udaltzaingoaren zintak ikus daitezke zuloak tapatzeko.

Informazio hori guztia esku artean, honi buruz galdetu genion Udal Gobernuari.

Zinegotzi arduradunaren ahotan entzun ahal izan genuen, proiektua 2022koa dela eta egun 325.000 euroko aurrekontua duela.

Hura egikaritzeari buruz ere galdetu genuen, eta Udal Gobernuak ez zuen baieztatu 2026ean egitekoa zenik. Baizik eta baranda berritzeko finantziazioa bilatu eta lortu behar dela.

2022tik proiektua mahai gainean egonik eta barandaren egoera kaxkarra ikusirik, segurtasun-neurriak gailenduz EH Bildutik ezinbestekoa ikusten dugu finantziazioa lortzea proiektua egin ahal izateko.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu



Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Lauaizeta kaleko zubiaren baranda konpontzeko lanak lehenbailehen egin ditzan.

Donostian, 2025eko irailaren 19an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia